

# AZKEN URTEOTAKO INMIGRAZIOA

Paulo AGIRREBALTZATEGI

Euskaltzale, escritor y editor

**P**ierre Lhandek *L'Emigration Basque* liburua idatzi zuen XX. mendearen hasieran –askoz beranduago Ignazio Basurkoko gaztelaniara itzuli eta Auñamendi editorialak argitaratu zuena (1971)–. Lan beharrak eragindako euskaldunen emigrazioarekin batera sartu zituen Lhandek euskal kortsarioak, merkataria eta militarrek. Baita misiolariak ere; eta San Frantzisko Xabierkoari eskaini zion gainera bere obra. Horrela ikusita, epopeiaren kutsua ere har dezake emigrazioaren gaiak. “Laneko” emigrazioaz ari gara aldizkariaren zenbaki honetan: zehazkiago Euskal Herriko “inmigrazioaz” ari gara, lan bila gure Herrira etorri datozen etorkinei buruz, hain zuzen ere. Eta “laneko” emigrazioa epopeia ez, baina drama, eta sarritan tragedia, bihurtu ohi da. Dena dela, aurten santu nafarraren jaiotzako V. mendeurrena ospatzen dugularik, berri eskain diezaiogeko zenbaki hau ere.

Euskaldunok migrazio-herria izan garela esatea gehiegitxo litzateke agian lehen kolpean. Historian sartu ondoren behintzat, ez gara migrazio-herria izan, herri nomadak diren moduan –nekazaritzari lotu aurreko historiaurreko hemengo jendea ere nomadatzat jotzen dute adituek–; baina herri migratzailea izan garela esatea ez litzateke gehiegizkoa seguruenik. Hots, lurralde honetatik kanpora lanera eta bizitzera joatea eta kanpotik bertora lanera eta bizitzera etortzea, fenomeno oso ezaguna izan da Euskal Herriaren historian barna, eta horren ezaugarrietakotzat ere jo ohi du zenbaitek. Bere mendi eta lautadetan, lurralde irekia izan da, azken batez, Euskal Herriarena, kanpora eta barrura irekia.

“Joaera” –edo emigrazioa– deitzen du Martzelino Soroak XIX. mendean Euskal Herriatik samaldaka Argentinara, Uruguayra eta Hego Ameriketara oro har lan bila zihoazen euskaldunena (*Euskal napparren joaera edo emigrazioa*, 1988). Haiek “joankinak” ziren bezala, etorkinak deitzen ditugu gaur egun Ameriketatik, Afrikatik, Europatik edota Asiatik lan bila gure Herrira datozen jendeak. Laneko migrazioaz ari gara, izan ere, hemen. Berton lanik eta bizibiderik ez zegoenean egin dute alde herritarrek hemendik, lan ugariagoa eta bizibide errazagoa aurkitu duten atzerrietako lurraldetara; eta beren herrialdean lanik eta bizibide erosorik ez eta, hemen lan ugariagoa eta bizibide errazagoa aurkitu dutenean etorri

dira atzerritarrak hona lan bila. Laneko –gehiengentan “langabeziagatiko”– migrazioaz ari gara, beraz, eta jende-multzoen migrazio kolektiboaz ari gara; jende bakanen laneko migrazioa, bakanen “joaera” eta beste bakanen etorrera, gertatu, etengabe eta aldi berean gertatu dira seguruenik Euskal Herriaren historian barna; baina historiako garaï batzuetan izaera kolektiboa eta masiboa hartu du migrazioak, batean “joerakoak” eta hurrengotan “etorrerakoak”; eta garrantzi sozial eta ekonomiko handikoa gertatu da horrelakoetan barrurako nahiz kanporako migrazioa.

Horrela ulertuta migrazioa, beraz, herri emigratzailea –joerakoa– izan da Euskal Herria Historiako hainbat alditan. Erromatar Inperioan baziren euskaldunen koloniak, Inperio zabalak berak eskaintzen zituen aukerak baliatu zituztenak. Badirudi euskal arrantzaleek ere beren kolonia modukorik eratu zutela Erdi Aroan Europako iparraldean eta Ternuan. Euskal jendearen emigrazio benetan masiboa, ordea, Aro Modernokoa da, batez ere Hego Euskal Herrian: Espainiara eta bereziki Konkistaren ondoren irekitako Amerikako lurralde zabaletara. Amerika –Ipar eta Hego–, eta neurri askoz txikiagoan Australia, izan zen Hego Euskal Herriko jendearen laneko emigrazio ugariaren helmuga guztiz nagusia Aro Garaikidean ere –XIX. mendean eta XX. mendearen lehen erdian–; ez ditugu hemen kontuan hartzen, besterik gabe, arrazoi politikoengatik XIX. nahiz XX. mendeetan erbesteratuak–. Era berean Ipar Euskal Herriatik, Parisera eta Frantziako beste hiritara lanera eta bizitzera aldatu jende ugari gain, Ameriketara jo zuten askok eta askok, Hego Ameriketara ez ezik Ipar Ameriketara, artzain lanetara batez ere. Mendetako emigrazio horren ondorioz, gaur egun lau milioi eta erdi (4.500.000) inguru omen dira munduan zehar bizi diren euskal herritarrak eta horien jatorrikoak. Datu oso adierazgarria eta interesgarria izanik ere hori, jakina, soziologiak ezin ditu horiek denak gaurko euskal emigrantez hartu.

Hego Euskal Herria inmigrazio-leku bihurtu zen XIX. mendearen bigarren erditik hasi eta XX. mendearen lehen erdi luzeraino, Bizkaiko meatzaritzako lanak erakarrita aurrenik, eta ondoren hemengo industrializazio-prozesuak eskainitako lanaren bila. Galiziatik eta Espainiako lurraldeetatik etorri ziren uholdeka langileak, aurrenik Biz-

kaira batez ere, geroago Gipuzkoara ere bai, eta azken aldera bereziki Araba eta Nafarroara. Industriaren sektore hori, ordea, ez zen gauza izan Hegoaldeko nahiz Iparraldeko nekazaritza sektoreko eskulan gehigarria bereganatzeko, eta sektore horretako euskal gazte askok Ameriketarako eta urrunerako bidea hartu zuen uholdeka, lan bila. –Hasieran aipaturiko Lhandek 1909an dioenez, azken 90 urtetan 90.000 lagun inguruk egin zuten alde Ameriketara lan bila Lapurdiko eta Zuberoako euskal herrietatik; Aztiker-ek argitaratu duen liburu intaeresgarriareb arabera, 100.000ko kopurua ematen du 1831-1907 urteetarako Ipar Euskal Herri osoarentzat.\* Historia luzea izan da hori, Euskal Herria eta gizartea baldintzatu duena eta oraindik baldintzatu duena; eta, horrexegatik da guztiz kontuan hartzekoa. Baina azken urteotan bestelako inmigratio mugimendua sortu da Euskal Herrian, inguruko Herrialdeetan eta Europa Mendebaleko bestelako herrialde askotan bezala. *Herria-2000-Eliza* ren zenbaki honetan azken urteotako Euskal Herriko inmigratioaz, laneko inmigratioaz eta etorkinez ari gara, hain zuzen ere. Orain artekoak ez bezalakoa da inmigratio-olde berria, inoiz baino urrunagotikoa eta askoz zabalagoa, eguzkialde guztietatik baitatoz guregana etorkin berriak: *Ekialdetik* –urrunetik (Txina) eta erdikotik (Armenia, etab.)– *Hegoaldetik* –Mediterraneoz bestaldeko Magreb-etik nahiz Afrika beltzaren bihotzetik–, Atlantikoz harantzako *Mendebaldetik* –Hego Amerikako zenbait herrialdeetatik edo garai bateko “Mendebaldar Indietatik”–; eta *Iparraldetik* ere bai –Europar Batasuneko Herrialde berrietatik–.

Laneko –langabeziagatiko– migratioa arazo eta buruhauste da beti, sarritan irtenbide eta soluzio izanik ere. Euskal Herri inmigratio berriari begira, etorkinen sufrimenduak deitzen gaitu aurrenik: beren herrialdeetan bizi izan dutenak, hona etortzeko jasan behar izan dutenak eta hemen integratzeko izaten dutenak. Etorkinen beraien arazo juridiko, sozial, laboral, kultural eta bestelakoek deitzen gaituzte.

Jatorriko herrietan hasten dira, hasi ere, etorkinen buruhausteak eta arazoak; haietan beren bizitzentzat burubiderik aurkitzen ez dutelako deliberatzen dira, izan ere, beste herrialderen baterako bidaia menturatsuari ekitera.

Emigranteen “ihesbidean” jarraitzen du sarritan horien neke-penek, ez lan-kontratu eta ez agiri pertsonal, beren bidaia bihurri eta “animaliazkoari” ekiten diotenean: jatorriko herrialdearen baimenik gabe maiz eta helburuko herrialdearen debekuaren aurka askotan, horien artean ezarritako hesiak hautsi beharrean. 2000. urtean Erresuma Batuan kamioi izozkailuaren barruan hil ziren 58 etorkinen argazki patetikoa antzera errepikatzen ari zaigu maizegi Mediterraneoko

eta Atlantikoko itsasoetan Espainiara eta Europara ihesean datozen Afrikarrekin, edota Europa erdiko mugetan, ekialdetik klandestinitatean Europar Batasuneko herrialdeetan sartu nahi dutenekin. Euskaldunoi ez zaizkigu berriak gertatzen gainera horrelako irudiak, antzekoak bizi eta ikusi behar izan baitzituzten XIX. mendean Hego Ameriketara zihoazen euskaldunek, goian aipatu dugun Sorroaren liburuak gordinki kontatzen eta salatzen digunez.

Azkenik, helburuko herrialdean jarraitzen duten gehienetan etorkinen neke-penek, lan bila eta agiri eske, gizarte berrira egokitu eta bertan bizitzeko lekua lortu nahian. Batzuetan alferrikakoa gertatzen den ahalegina horiena, beren herrira edo munduko beste bazterren batera iraitziak gertatzen direnean; eta onenean ere, luzaroan luzatu ohi den beldur egoera prekarioa horiena, benetako onarpen eta egonkortasun sozial, laboral, juridikoa lortu artekoa.

Gure arteko inmigratio berriko etorkinen sufrimendu eta neke-pena horien sustraian dauden arazoak argitzen laguntzea, eta gure Herrian horien integratio juridiko, sozial, kultural eta politikoa giza eskubideen eta gizatasunaren gain zuzenbidez bideratzeko irizpideak eta jokabideak markatzen saiatzea: horra *Herria 2000 Herria*-ko zenbaki honen helburua.

**"No se puede contemplar la inmigración sólo como un problema. La inmigración es también una oportunidad, tanto para la vida de los inmigrantes como para los ciudadanos: también en nuestro Pueblo se ha abierto esa oportunidad histórica".**

Baina inmigratioari ez zaio buruhauste den aldetik bakarrik begiratu behar. Aukera ere bada inmigratioa, etorkinen bizitzentzat eta herritarrontzat: aukera historiko irekia gure Herriarentzat ere.

Bi aldeetatik –dramaren eta epopeiaren aldeetatik– begiratuta gaur eguneko Euskal Herriko inmigratioari eta etorkin berrion aurpegiei, gogoeta hau egin, eskaini eta ireki nahi dugu, aldizkariaren horri hauetatik.